

ARTE ETA OFIZIO ESKOLA TXINGURRI INDUSTRIA-AUZOAN.

Kokapena: Txingurri industria-auzoa, Herreran (Donostia).

Ikaslea: Idoia Moreno Tetuan

Tutorea: Iñaki Begiristain

Donostian, 2017ko uztailearen 7an.

Proiektu hau, hiri sarean baztertuta eta deskonektatuta geratu diren industria-guneen berraktibazio eta integrazioaren hausnarketa baten ostean jaio zen.


Donostiako hainbat txoko identifikatu ziren aurrena. Mundaiz 16 multzoa, Intxaurren Kalea 59 ingurua (Letaman fabrika zegoen inguruan), Karmengo Andre Maria Kalea 47 (Egian), ... eta horien artea Herreran dagoen gunek interesgarri bat: Txingurri pasealekua. Herrerako Txingurri industria-azuloaren potentzialak interbentzio bat eskatu zuen. Alde batetik, Altzaren muga gainditzearen beharra ikusi zen, Intxaurren, Bidebieta, Trintxerpe... parean izanik, egoera honek oztopo bat suposatzen baitzuen. Bestetik, Altzan bertan Larratxo eta Herrera arteko konexio bilakatuko zen giltzarri argi bat bezala ikusten zen gunea. Azkenik, bertako arkitekturaren balioa ukaezina delako. Terán eraikina eta Odriozola eta Berridi (ondoren Rich) eraikinei bizia itzuli behar zitzaizkien.

Bertan, Arte eta Ofizio eskola bat eratzean, gunea berpizteaz gain, Donostian arte eta tailerren berpiztea bideratu nahi da. Euskal artisten beste polo bat bilakatuko litzake, fabriken funtzionaltasuna, bere eraberritzean kreativez eta espazio zabalen erabilgarritasunaz baliatuz.

1969. urtean, Oteizak Euskal Artearen Eskola bat sortu zuen Deban, euskal artistak bildu zituztena, urte gutxi batzuek funtzionatzen egon zena. Lan, ikasi, formatu... ideia hau Herrerara eraman daiteke, gaur egungo kontestuan, tailer, erakusketa, eskola, egoitza... hau da, Euskal Herri mailan elkar-puntu bat bihurtu.

Auzo-eskola-artisanu zubia. Eskolak auzoari eman, auzotik jaso, tailerrak berpiztu eta gunea martxan jarri.

Proposamena zabala da eta proiektu honen bitartez hasiera txiki bat eman nahi zaio: eskola, eskola tailerrak eta espazio publikoak landu dira. Teran eraikinean birgaitzea egingo da eskola tailerrentzat eta eskola oin berria egingo da ondoren, Teranekin konektatua. //



SARRERA

ARTE ETA OFIZIO ESKOLA TXINGURRI INDUSTRIA AUZOAN

AURKIBIDEA

1
Sarrera

MEMORIA

3
Eremuaren datuak

4
Hirigintza

6
Esku hartzearen oinarria

7
Programa eta funtzionamendua

PLANOAK

10
Proiektua

26
Garapen teknikoa

I ERANSKINA

35
Ondarearen Analisia



EREMUAREN DATUAK

Proiektua Donostiako Altza auzoan kokatzen da. Altza, gunedeberdinetan banatuta dago, bakoitzak bere nortasuna duena. Txingurri industria-aztoa Herrera ondoan eta Larratxoren malda hasieran kokatzen da, baino oso konexio txarra du bi guneeatarantz.

Altzaren kokapena aztertzerakoan, ez da Donostia soilik aipatu behar, Pasaiarekiko duen gertutasunaren eragina ere aipagarria delako. Pasaiako portua oso gunestrategikoa izan da beti. Portuak duen aktibitatea bere ingurura hedatuz joan da eta Altza ez da salbuespen bat izan. Altzako industriaren sortze eta garatzeak harreman zuzena du auzoaren kokapenarekin.

Lursaila eremu lau batean kokatzen da, eta aldi berean, bere inguruan dena da maldatsua. Larratxo auzoa aldapan gora doan kale baten inguruan hedatzen da, bere hasierako puntuan, kotarik baxuenean, Herrerako pasealekuaren elkargunetik abiatzen da. Herrerako pasealekua, Altza den muinoaren beste aldetik gora doa, Herrera auzoko bihotza San Luis plaza delarik.

Bi kale hauen elkargunearen ezker aldean dagoen gunean kokatzen da Txingurri pasealekua. Industria gunehonetan 3 eraikinen multzoan kokatzen da proiektua: Odriozola eta Berridi (Rich), Teran Metalurgiak eta Avesa (eraitsiko dena). Eskola, azken bi horietan kokatuko da.//



Gaur egungo egoera

HIRIGINTZA

Donostiako HAPO 2010ean egin zenean, Txingurri industria-auzoa dagoeneko erabilera aktibo handirik gabe aurkitzen zen, eta nahiz eta proposamenik ez egin, gunean erreparatu zuten. Honen arabera, lurzorua erabilera "sustatu beharreko plangintzaren arabeko zonifikazio xehatua duen esparrua"-ren taldearen barruan dago. Lurzoruaren kategorian berdin definitzen da, "sustatu beharreko plangintza berezian kategorizatu beharreko hiri lurzorua".

Altzako Arau Partikularretan (AAPP Altza) Txingurri azpiesparrua mugatzen da, eta bertan etxebizitza erabilera sustatzea du helburu. "Munta handi samarreko dentsitatea duen eraikuntza irekiko tipologiako bizitegi-garapen berria antolatzea eta lurzorua garatzea". Jarduketa Integratua egin behar da gune hau berrantolatzeko.

3.- Antolamendu xehatua zehazteko erregimena.

A.- "AL.02.1 Txingurri" azpiesparrua.

Azpiesparru osoa barne hartzen duen eta udal-sustapeneko den Hiri Antolamenduko Plan Berezia landu eta izapidetuko da, azpiesparruaren antolamendu xehatua zehazteko.

Honez gain, beste hainbat helburu ezartzen ditu: komunikazio eta bide artikulazioaren baldintzak hobetzea, etxebizitza berrien erregimen juridikoa arautzea, urbanizazioa hobetzea, oinezkoen eta bitarteko ez motordunen irisgarritasuna egokitzea eta hobetzea, Txingurriko erreka-stoa berreskuratzea eta balioa ematean,... Dena den, hurrengo irudian agertzen den bezala, 4 urteko epea eman zen Plan Berezia egiteko, eta 7 urte ondoren guneak oraindik berdin jarraitzen du.

4.- Programatzeko eta gauzatzeko erregimen orokorra.

A.- Gauzatzeko erregimena eta programazio orokorra.

* Hiri-garapenaren eta udalerriko lurzorua betetzeko estrategiarekin bat eginez, esparruko hiri-garapena amaitzea aurrekusi da, Plan Orokorraren programazioa amaitu aurretik.

* "AL.02.1 Txingurri" azpiesparrua.


Azpiesparruan lur eta jardura berriak barne hartzeko aukeraren kalterik gabe, "AL.02.1 Txingurri" azpiesparruari tratamendu bateratua emango zaio, dagokion programazioa eta gauzatzea egiteko. Besteak beste, dagokion jardun integratuko esparrua mugatuko da, lur berriak barne hartuz eta/edo gehituz.

B.- Garapen-plangintza lantzeko eta onartzeko epeak

"AL.02.1 Txingurri" azpiesparruan sustatuko den Hiri Antolamenduko Plan Berezia, Plan Orokorra behin betiko onartzen denetik 4 urteko epean landu eta onartuko da.

C.- Sistema orokor publikoak lortu, gauzatu eta ordaintzeko erregimena.

Ez dira ezarri erregimen hori arautzeko aurreikuspenak.



BIDE SAREA

HEGOALDE-EKIALDE LINEA (ADIF)	—
GELTOKIA (ADIF)	○
MENDEBALDE-EKIALDE LINEA (EUSKOTREN)	—
GELTOKIA (EUSKOTREN)	○
BIDEGORRI NAGUSIAK	—
METROPOLIKO SAREA	—
HIRIKO SARE NAGUSIA	—
HIRIKO BIGARREN MAILAKO SAREA	—

HIRIGINTZA GAUZATZEKO BALDINTZAK
 IRADOKITAKO BALIZKO JARDUN INTEGRATUKO ESPARRUAK, PLANGINTZA XEHATUA LANTZEAN ZEHAZTU ETA/EDO BERRETSI BEHARREKOAK

GAUR EGUNGO EGOERA. LURZORUAREN MUGAKETA (ESPARRUAK ETA AZPIESPARRUAK), SAILKAPENA ETA KATEGORIZAZIOA

URBANIZAZIO GABEZIAREN / URRITASUNAREN ONDORIOZ FINKATU GABEKO HIRI LURZORUA (PLAN OROKORRA)

PLANGINTZA FINKATUAN KATEGORIZATUTAKO EDO SUSTATU BEHARREKO PLANGINTZA BEREZIAN KATEGORIZATU BEHARREKO HIRI LURZORUA

Arau Partikularren gainontzeko ataletan zehazten diren puntu guztiak (zonifikazioa, eraikigarritasuna, eraikinen forma arautzen duten baldintzak, lursail zatiketako baldintzak, erabilerak, jabariak, kategorizazioa, ...) garatu beharreko Plan Berezian zehaztuko lirakeela dio.

A.- "AL.02.1 Txingurri" azpiesparrua.

Hiri Antolamenduko Plan Berezia egitean definituko da.

Ondareari dagokionez, ez da elementurik babesten.

VI.- ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK

Esparruan ez da identifikatu Katalogoan barne hartutako eraikuntza eta/edo elementu berezirik.

Ondare eraikiari dagokionez, aurreko aurreikuspenak gaur egun izapidetzen ari den hiriko Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezian du jatorria (behin betiko onarpena: 2009ko uztailaren 3a). Zentzu horretan, Plan Berezia behin betiko onartzean adierazitakoa hartuko da kontuan.

Interesa duten beste mota bateko ondasunei (naturalak...) dagokienez, gai honetan sustatu beharreko plangintza bereziaren emaitzak hartu beharko dira kontuan.

Azkenik, plangintza garatzeko berariazko erregimenean, Plan Berezia egin behar denez Txingurri gunean, ez da eraikinerik zehazten antolamenduz kanpo, Plan Berezian uzten zaizkio erabakiak.

3.- Plangintzarekin bat ez datozen eraikuntzak.

"AL.02.1 Txingurri" azpiesparruari dagokionez, bertan sustatuko den Hiri Antolamenduko Plan Berezian ezarritako araudiaren arabera identifikatuko da.


Honen ondorio bezala honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

/ Etxebizitza erabilera sustatzea, ez da ikusten gaur egungo kontestuan prioritate bat, beraz ez da jarraituko. Tailerrak mantentzea proposatuko da, erabilera anitzeko eraikin bezala, etxebizitzak zein tailer, bulego, ekipamendu izan daitezke, eta bestetik, Arte eta Ofizio eskola ekipamendua jarriko da, erakusketa gunea eta ikasle egoitzarekin batera.

/ Irisgarritasuna eta konexioak egokitu eta hobetuko dira, Larratxora-Herrera artikulazio bilakatuz.

/ Teran eta Odriozola eta Berridi eraikinei balioa aitortzen zaie, funtzio berri bat eman eta berregokituz.

/ Proiektua garatzeko Jarduketa Integratu baten bitartez Plan Berezia bat antolatu beharko litzake. //



HIRIGINTZA ESPARRUAK (A.U.)		ZONIFIKAZIO XEHATUA	
a. BIZITEGI LURSAILA		e. KOMUNIKAZIO SISTEMA	
a.10 HIRIGUNE HISTORIKOKO BIZITEGI LURSAILA		e.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SAREA	
a.20 ZABALGUNE ARRUNTEKO BIZITEGI LURSAILA		e.20 TRENBIDE KOMUNIKAZIOEN SAREA	
a.21 ANTZINAKO ZABALGUNEKO BIZITEGI LURSAILA		e.30 PORTU ESPAZIOA	
a.22 ZABALGUNE BERRIKO BIZITEGI LURSAILA		e.40 APARKALEKUAK	
a.30 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI LURSAILA		f. ESPAZIO LIBREAK	
a.40 GARAPEN TXIKIKO BIZITEGI LURSAILA		f.10 HIRI ESPAZIO LIBREAK	
b. HIRUGARREN SEKTOREKO LURSAILA		f.20 HIRI ESPAZIO LIBRE ARRUNTAK	
b.10 INDUSTRIA LURSAILA		f.30 IBAI IBILGUAK	
b.20 HIRUGARREN SEKTOREKO LURSAILA		h. ZERBITZU AZPIEGITURAK	
g. EKIPAMENDU KOMUNITARIOA		h.00 ZERBITZU AZPIEGITURAK	
g.00 EKIPAMENDU KOMUNITARIOA		SUSTATU BEHARREKO PLANGINTZAREN ARABERAKO ZONIFIKAZIO XEHATUA DUTEN ESPARRUAK	

ESKU HARTZEAREN OINARRIA

Txingurri industria auzoko bilakaera aztertu egin da, gaur egungo egoera ulertu ahal izateko. Industriaren desagerpenak eta etxebizitza erabileraren nagusitasunak izandako ondorioak bizi ditu guneak. Analisisian balioa duten eraikinak identifikatu dira. Hurrengo hirurak: Odriozola eta Berridi multzoko fabrika eta siloa, eta Teran eraikina.

Esku hartzeak eremuko hirigintza planteamendu batetik hasiko da. Kota aldaketa salbatzeko konexio guneak eta espazio publikoaren lanketak erabakiko dutelako eskolako eraikin multzoaren erantzuna. Espazio publikoan hurrengo arazoak identifikatu dira:


- / Irisgarritasun arazoa. Kota aldaketak malda handiko kaleek salbatzen dute. Bideak erraztu eta maila desberdintasuna gainditzen lagunduko da.
- / Bizilagun asko dituen auzoa da, aparkaleku gutxirekin, honek aparkaleku arazo bat suposatzen du.
- / Plaza baten falta. Bizilagunak, langileak eta eskolako erabiltzaileak batuko dituen espazio publiko bat behar da.
- / Eraikinen batasuna. Eraikin multzoaren sarrera eta zirkulazioak batu behar ditu espazio publikoak, guneari lotura emanez.

Txingurri auzoaren antolaketa erabilera desberdinen batasunean oinarrituko da. Aukeratutako eraikin multzoa eskola fokoa izango da, eta gainontzeko eraikin industrialak bulego zein tailerretara bideratuko dira. Ondoren, gaur egungo parkingaren ordez, aparkaleku eraikin bat proposatuko da, bizilagun, eskola erabiltzaile, langile eta kanpoko jendearentzat funtzionatuko duena. Azkenik, eskola fokoa, ikasle egoitza, erakusketa espazioa eta eskola kokatuko dira.


Honen aurrean, espazio publikoari dagokionez, giltzarria izango den gune nagusi bat kokatuko da, erabiltzaile guztientzat bideratuta. Oinezkoen ibilbide zein aisialdirako balio duen gune bat izango da, hiru eraikinen ardatzak elkartuko dituena. Aparkalekurako bideratuko den eraikinetik Larra txorantz igotzeko pasabidea ere izango da plaza nagusi hau. Beraz, ikasle, inguruko tailerretako langile eta bizilagunen espazioa izango da. Eskola eraikinak, espazio publikoaren luzapen izango dira, U bat sortuz. Espazio publiko hau lortzeko, Odriozola eta Berridi multzoko bulego eraikina eraitsi beharko da.

Plazak kota aldaketak dauzka. Kale nagusitik siloa eta ikasle egoitzaren artean malda luze batek osatuko du plazaren sarrera, espazio lau batean amaituko dena, fondo berdearekin. Beste aldetik, eskola ehunduraren norabidean plazak eraikinak harremanetan jarriko ditu, kota aldaketa graden bitartez lotzen.


Hirigintza plangintza finkatzerakoan, eskola multzoaren ardatzak argiak dira: plaza berriari erantzungo diote. Siloa espazio publikoarekin bat etorriko da, egoitzaren sarrera maldadun gunetik eramango da, eta eskolak graden jarraipena bideratuko du. Eskola Teran eraikinean eta ondoan txertatuko den luzapen batean kokatuko da, oin berrikoa.//




PROGRAMA ETA FUNTZIONAMENDUA




1 PARTZELA
Avesa eraikinaren eraispena eta partzelaren garbiketa. Inguruak kotak mantenduko dira, lur mugimenduak ahalik eta gutxien eragiten.



2 ARDATZ NAGUSIAK
Teran eraikinaren irekidura nagusiak (kamioen ateak) hedatu. Eskola eta tailerren antolaketa-
ren oinarri izango dira.



3 NUKLEOAK
Komunikazio eta instalakuntza nukleoak bi eraikinen arteko lotura puntua. Teran-etik kanpoko nukleoak zirkulazio gurtzatua eragingo du.



4 KANPOKO ETA BARNEKO GUNEEN ERAGINA
Teranen fatxadaren garbiketa eta azken oinaren luzapena komunikazio nukleoaren bitartez. Eskola eraikina topografiaren baldintzen menpe eta barne funtzioen argiztapenaren eragin zuzena. Espazio publikoa eskolara hedatu.

Proposamena Arte eta Ofizio eskola, Erakusketa Gunea eta Ikasle Egoitza erabilera multzoa da. Hiru erabilera hauek Teran eraikina eta bere luzapena, Siloa eta Odriozola eta Berridi fabrika ezarriko dira hurrenez hurren. Egoitza fabrika kokatzea aproposena da egitura erregularrak barne antolaketan asko lagunduko duelako. Siloa aldi baterako erakusketa gunea izatea proposatzen da, maiztasun batekin euskal artista desberdinen eskue-tatik pasatzea eraikinaren azpiegitura erakusketa bihurtzeko urtez urte. Arte eta Ofizio eskola Teran eraikinean eta ondoan txertatuko den luzapen batean kokatuko da, oin berrikoa.


Oin berriko eraikina bere inguruak baldintzatzen du. Avesa eraikinak utzitako partzela laua du, baino inguru maldatsuekin: hegoaldean karga horma batez malda handia duen kale batekin topatuko da, eta atzealdean maldan behera joango den berdegune batekin. Partzelaren beste alde luzeenean, iparraldean, Teran eraikina izango du, eta fatxada nagusian espazio publiko nagusia. Bertan, ikasgelak, liburutegia eta auditorioa kokatuko dira. Barne antolaketa ezin da ulertu Teran eraikinaren influentzia jakin gabe.

Teran eraikineko espazio zabalak aprobetxatuz, bertan eskolako tailer praktikoa kokatuko dira. Antolaketa eraikinaren elementuetan oinarrituko da. Kamioi sarrerak ziren ardatzek barne espaziora hedatuko dira, erabilera banatzen, eta ondoren ikasgaien araberako banaketa egingo da. Beheko solairuan material astunak: zura, metala eta hariaren lanketa. Lehenengo solairuan material arinak: buztina eta zeramika, bitxigintza, ehungintza eta marrazketa eta serigrafia. Eta azken solairuan ikus entzun gunea: argazkigintza, errebelazio gela eta estudio espazioa. Espazio guztiak egiturak markatutako ardatzen bitartez ordenatuko dira, eta bi aldetara zirkulazioak bereiziko dira: zamen zirkulazioa eta erabiltzaileen zirkulazioa.

Aipatutako kamioi sarrera zaharrek barne espazio antolatzen duten bezala, ardatz hauek hedatuko dira eraikina zeharkatuz eta zubi bihurtuz eraikin berrira iristeko. Eraikin berria bi besoren bitartez batuko da Teran eraikinarekin, eta gune hau bi eraikinak batzen dituen zentroa bilakatuko da. Bertan, instalakuntza nukleo nagusia kokatuko da, bi eraikinak hornitzeko balioko duena komun-aldagela espazioekin. Zentro honetatik hasita norabide bakoitzean erabilera bat garatuko da: atzekaldeko berdegunerantz liburutegia, karga horma itsurantz auditorioa eta espazio publikorantz sarrera nagusia, plazako graden jarraipena izango dena. Goiko solairurantz eramango dute gradak, bertan ikasle gunea egongo da: ikasgelak, bulegoak eta bilera gelak. Azken solairura soilik instalakuntza nukleoa hedatuko da, gela teknikoak kokatzeko.


ESKOLA 2400 m²

TERAN TAILERRAK 2680 m²



- TERRAZA 600 m²
- ERREBELAZIO LABORATEGIA 30 m²
- IKUS ENTZUN TAILERRA 90 m²

INSTALAKUNTZA NUKLEOA




- MARRAZKETA ETA SERIGRAFIA TAILERRA 150 m²
- BITXIGINTZA TAILERRA 120 m²
- EHUNGINTZA TAILERRA 120 m²
- ZERAMIKA ETA BUZTIN TAILERRA 120 m²
- BULEGOAK 40 m²

BILERA GELAK 95 m²

BULEGOAK 120 m²

IKASGELAK 65, 63, 61 eta 58 m²



- BILTEGIA 110 m²
- METAL LANKETA TAILERRA 90 m²
- HARRI LANKETA TAILERRA 90 m²
- ZUR LANKETA TAILERRA 90 m²
- BULEGOAK 40 m²

LIBURUTEGIA ETA IRAKURGELA 320 m²


AUDITORIOKO GELA TEKNIKOA 20 m²


AUDITORIOA 250 m²


ATEZAINZTA ETA IDAZKARITZA 55 m²

SARRERA ETA GRADA ESPAZIOA


ZAMEN ZIRKULAZIOA
ERABILTZAILEEN ZIRKULAZIOA
SARRERA
















A



B



C



ESPAZIO PUBLIKOA
 ARTE ETA OFIZIO ESKOLA TXINGURRI INDUSTRIA AUZOAN

▼ 14.40

▼ 14.10

▼ 14.20

▼ 22.50


▼ 20.00


▼ 17.50

▼ 14.40


ARKITEKTURA PLANOAK: OINAK / 0 SOLAIRUA

ARTE ETA OFIZIO ESKOLA TXINGURRI INDUSTRIA AUZOAN









ARKITEKTURA PLANOAK: OINAK / 1 SOLAIRUA
ARTE ETA OFIZIO ESKOLA TXINGURRI INDUSTRIA AUZOAN























E 1:150

5









LEIENDA

FATXADA

- FA01** / Korten altzailu xafla junta bertikalarekin, atzean Z perfla soldatua dutenak 6mm
- FA02** / Aire ganbara 40 mm
- FA03** / Z perfl metalikoa 80 mm
- FA04** / Isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- FA05** / Lamina iragazgaitza
- FA06** / Gogortasun handiko igeltsu plaka akustikoa, Knauf Diamant DFH11 12,5 mm
- FA07** / IPE 100 muntaga
- FA08** / Isolamendu termikoa, zuntz minerala 100 mm
- FA09** / Igeltsu panela 15 mm
- FA10** / Altzaituzko UPE 200

FORJATUA

- FO01** / Altzairuzko IPE 400 habea
- FO02** / Altzairuzko IPE 200 habexka
- FO03** / Txapa grekatua
- FO04** / Konektore metalikoa
- FO05** / Hormigoia 120 mm
- FO06** / Altzairuzko mailazoa
- FO07** / Zoru akaberaren arrastela 30 mm
- FO08** / Zoru akabera 30 mm

ESTALKIA

- ES01** / Altzairuzko IPE 400 habea
- ES02** / Altzairuzko IPE 200 habexka
- ES03** / Txapa grekatua
- ES04** / Konektore metalikoa
- ES05** / Hormigoia 120 mm
- ES06** / Altzairuzko mailazoa
- ES07** / Malda morteroa
- ES08** / Lamina iragazgaitza
- ES09** / Erresistentzia altuko isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- ES10** / Geotextila
- ES11** / Plot moldagarriak
- ES12** / Korten plaka junta irekiarekin 6 mm

HUTSARTEAK

- HU01** / L perfl metalikoa
- HU02** / Aurremarkoa
- HU03** / Tantakin metalikoa
- HU04** / Barlasaia metalikoa
- HU05** / Zubi termiko haustura duen arotzia, Secco Sistemi EBE 65
- HU06** / Lamina iragazgaitza
- HU07** / Beira bikoitza
- HU08** / Dentsitate altuko isolamentu termikoa 15 mm
- HU09** / Korten altzairuzko estaldura xafla metalikoa

ZORUA

- ZO01** / Garbiketa hormigoia 60 mm
- ZO02** / Cupolex
- ZO03** / Hormigoia
- ZO04** / Altzairuzko mailazoa
- ZO05** / Isolamendu termikoa, poliestireno 60 mm
- ZO06** / Zoru akabera 30 mm
- ZO07** / Drenai tutua
- ZO08** / Legarra
- ZO09** / Geotextila
- ZO10** / Delta drain konpresio geruza
- ZO11** / Lamina iragazgaitza

Eraikin industrialei keinu eginez, material metalikoak eta eraikuntza sistema lehorra erabili dira. Fatxada industrial arina da, zutabetik zutabera eutsita. Barneko orriak isolamendu, muntaga metaliko eta igeltsu panel erresistenteak osatzen dute. Baldintza akustikoak panelaren bitartez betetzen dira, eta termikoak lodiera handiko bi isolamendu geruzez. Barneko orria babesten lamina iragazgaitza dago, elkarguneak zigilatuta. Ondoren, muntaga bertikalek sortutako zubi termikoa kontrako norabidean kokatuta dagoen isolamendu termikoak ekiditen du. Akabera junta bertikala duten korten plakek osatzen dute.

Estalki iraulia da, isolamendua lamina iragazgaitza babesten. Akabera kortena izango da, eraikinaren materialtasuna borobilduz.

GARAPEN TEKNIKOA: ERAIKUNTZA

LEIENDA

FATXADA

- FA01 / Korten altzailu xafla bertikalarekin, atzean Z perfila soldatua dutenak 6mm
- FA02 / Aire ganbara 40 mm
- FA03 / Z perfil metalikoa 80 mm
- FA04 / Isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- FA05 / Lamina iragazgaitza
- FA06 / Gogortasun handiko igeltsu plaka akustikoa, Knauf Diamant DFH11 12,5 mm
- FA07 / IPE 100 muntaga
- FA08 / Isolamendu termikoa, zuntz minerala 100 mm
- FA09 / Igeltsu panela 15 mm
- FA10 / Altzaituzko UPE 200

FORJATUA

- FO01 / Altzairuzko IPE 400 habea
- FO02 / Altzairuzko IPE 200 habexka
- FO03 / Txapa grekatua
- FO04 / Konektore metalikoa
- FO05 / Hormigoia 120 mm
- FO06 / Altzairuzko mailazoa
- FO07 / Zoru akaberaren arrastela 30 mm
- FO08 / Zoru akabera 30 mm

ESTALKIA

- ES01 / Altzairuzko IPE 400 habea
- ES02 / Altzairuzko IPE 200 habexka
- ES03 / Txapa grekatua
- ES04 / Konektore metalikoa
- ES05 / Hormigoia 120 mm
- ES06 / Altzairuzko mailazoa
- ES07 / Malda morteroa
- ES08 / Lamina iragazgaitza
- ES09 / Erresistentzia altuko isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- ES10 / Geotextila
- ES11 / Plot moldagarriak
- ES12 / Korten plaka junta irekiarekin 6 mm

HUTSARTEAK

- HU01 / L perfil metalikoa
- HU02 / Aurremarkoa
- HU03 / Tantakin metalikoa
- HU04 / Barlasaia metalikoa
- HU05 / Zubi termiko haustura duen arotzia, Secco Sistemi EBE 65
- HU06 / Lamina iragazgaitza
- HU07 / Beira bikoitza
- HU08 / Dentsitate altuko isolamentu termikoa 15 mm
- HU09 / Korten altzairuzko estaldura xafla metalikoa


ZORUA

- Z001 / Garbiketa hormigoia 60 mm
- Z002 / Cupolex
- Z003 / Hormigoia
- Z004 / Altzairuzko mailazoa
- Z005 / Isolamendu termikoa, poliestireno 60 mm
- Z006 / Zoru akabera 30 mm
- Z007 / Drenai tutua
- Z008 / Legarra
- Z009 / Geotextila
- Z010 / Delta drain konpresio geruza
- Z011 / Lamina iragazgaitza


EUSTORMA

- EU01 / Hormigoia 300 mm
- EU02 / Altzairuzko armatua


B3* / ELKARPUNTUA ESTALKIAN (HORMA)




B3 / ELKARPUNTUA ESTALKIAN





B1' / ELKARPUNTUA FORJATUAREKIN



B1' / ELKARPUNTUA ZORUAN



B1' / ELKARPUNTUA ZORUAN



LEIENDA

FATXADA

- FA01 / Korten altzailu xafla junta bertikalarekin, atzean Z perfila soldatua dutenak 6mm
- FA02 / Aire ganbara 40 mm
- FA03 / Z perfil metalikoa 80 mm
- FA04 / Isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- FA05 / Lamina iragazgaitza
- FA06 / Gogortasun handiko igeltsu plaka akustikoa, Knauf Diamant DFH11 12,5 mm
- FA07 / IPE 100 muntaga
- FA08 / Isolamendu termikoa, zuntz minerala 100 mm
- FA09 / Igeltsu panela 15 mm
- FA10 / Altzaituzko UPE 200

FORJATUA

- FO01 / Altzairuzko IPE 400 habea
- FO02 / Altzairuzko IPE 200 habexka
- FO03 / Txapa grekatua
- FO04 / Konektore metalikoa
- FO05 / Hormigoia 120 mm
- FO06 / Altzairuzko mailazoa
- FO07 / Zoru akaberaren arrastela 30 mm
- FO08 / Zoru akabera 30 mm

ESTALKIA

- ES01 / Altzairuzko IPE 400 habea
- ES02 / Altzairuzko IPE 200 habexka
- ES03 / Txapa grekatua
- ES04 / Konektore metalikoa
- ES05 / Hormigoia 120 mm
- ES06 / Altzairuzko mailazoa
- ES07 / Malda morteroa
- ES08 / Lamina iragazgaitza
- ES09 / Erresistentzia altuko isolamendu termikoa, poliestireno 40 mm
- ES10 / Geotextila
- ES11 / Plot moldagarriak
- ES12 / Korten plaka junta irekiarekin 6 mm

HUTSARTEAK

- HU01 / L perfil metalikoa
- HU02 / Aurremarkoa
- HU03 / Tantakin metalikoa
- HU04 / Barlasaia metalikoa
- HU05 / Zubi termiko haustura duen arotzia, Secco Sistemi EBE 65
- HU06 / Lamina iragazgaitza
- HU07 / Beira bikoitza
- HU08 / Dentsitate altuko isolamentu termikoa 15 mm
- HU09 / Korten altzairuzko estaldura xafla metalikoa


ZORUA

- Z001 / Garbiketa hormigoia 60 mm
- Z002 / Cupolex
- Z003 / Hormigoia
- Z004 / Altzairuzko mailazoa
- Z005 / Isolamendu termikoa, poliestireno 60 mm
- Z006 / Zoru akabera 30 mm
- Z007 / Drenai tutua
- Z008 / Legarra
- Z009 / Geotextila
- Z010 / Delta drain konpresio geruza
- Z011 / Lamina iragazgaitza


EUSTORMA

- EU01 / Hormigoia 300 mm
- EU02 / Altzairuzko armatua


B4 / ARGIZULOA




B3' / EGITURAREN BESTE NORABIDEAN




B2 / AROTZIA FINKOA ETA ZABALGARIA





H1 / FATXADA OPAKOA




H2 / AROTZIA FINKOA



H2' / AROTZIA ZABALGARRIA









Teran eraikineko egitura nagusia zaharberritu eta mantenduko da. Egitura originala perimetroan kokatzen da habetarte handiko estalkia eutsiz (16m-ko argia), eta honen barnealdean, lehenengo solairua eusteko hormigoizko egitura berri bat ezarriko da.




Eskolako eraikin berrian, alde batetik hormigoi armatuzko eustorma bat dago mendi magala eutsiz, eta beste aldetik, Teran eraikineko portikoen lerrokadurak erreferentzi gisa hartuko dira (5m portikoen ardatzen artean). Eraikinaren funtzioarekin bat ez datorrenean, hau da, ikasgelen espazio beharreatatik, portiko tartea hedatuko da (6,5m).

Egitura portikatua metalikoa da. Portikoak hegoaldeko eustorman bukatzen direnez, azken horrek egitura zurruntzen du. Dilatazio junta bat dago egituraren luzera dela-eta (guztira 51m), egituraren tartea eta barne espazioen funtzioak aldatzen diren gunean.

Zimendua hormigoi armatuzkoa da, zutabeen kasuan zapata isolatua eta eustorman jarraia.

GARAPEN TEKNIKO: EGITURA









Ur beroa ———
 Ur hotza ———

Eraikinak instalakuntza nukleoa izango du, bi eraikinak hornituko dituen. Estalkian kokatuko da, eta bertatik muntaga bertikal nagusietatik banatuko da bi eraikinetara.

Ur hornikuntza estalkira iristeko ez da ponparik behar, bailara baten behealdean dagoenez ez delako presio arazorik egongo. Bero ponparen bidez eta eguzki panelek bitartez berotuko da ura.

Gune hezeak instalakuntza nukleoan kokatuta daude, sarea gune bakar batera eramateko.






Saneamendua ———
Euri urak ———

Sare banatua denez, euri urak eta ur erabiliak sistema desberdinen bidez eramango dira, elkartu gabe.

Gune hezeak instalakuntza nukleoan bilduta edukitzeak, saneamendu sarea azkarra eta garbia ahalbidetzen du. Teran eraikinean, tailerretan, harraska zehatz batzuk dauzka higie-ne ona mantentzeko. Hauek zuzenean goitik behera joango dira. Ondoren, muntagak eraikinen arteko pasabidera bideratuko dira, handik sare nagusira eramateko.

Euri urak kanporatzeko, estalki lauak zenbait puntuetan bilduko ditu urak, eta eraikinaren kanpoaldetik eramango dira, bi eraikinetan modu berean izango da.




Bultzada sarea ———
 Itzulerako sarea ———

Airearen berritzea, girotzea eta berotzea sistema bateratu baten bitartez egingo da: bero ponparen bidez. Bero ponpa ur bero sanitarioa berotzeko ere erabiliko da.

Bi makina egongo dira, bi eraikinak independenteki funtzionatu ahal izateko. Biak gune berdinean kokatuko dira: instalakuntza nukleoan. Bertatik, batak eskola gunea hornituko du, eta besteak, zubiaren estalkitik pasaz, tailerretara iritsiko da.

E 1:400





P. Behrens: AEG Turbinenfabrik, 1909

I ERANSKINA: ONDAREAREN ANALISIA

Proposamenean parte hartzen duten eraikin multzoaren aurretiko analisi bat beharrezkoa da interbentzioa egoki garatu ahal izateko. Eraikin eta inguruaren kontestua aztertuko dira, baita ere hauen arkitektura eta gaur egun eduki ditzaketen patologia edo aldaketan beharra ere.

1 TESTUINGURUA

Txingurri industria gunea, Bigarren Industria Iraultzaren belaunaldiaren ondorengo taldearen parte da, Gipuzkoan beste hainbeste bezala. Bigarren Industria Iraultza, elektrizitatearen eta errektuzako motorren etorrerarekin erlazionatzen dena da, arkitekturako Mugimendu Modernoko gailentzearekin kointziditzen duena. Gaur egun, eraikin horietatik asko eraitsiak izan dira. 70 eta 80ko hamarkadako krisi industrialaren ondorioz, eraikin industrial asko gure hiri nukleoetatik desagertzen joan ziren, higiezin-merkatuak hau areagotuz. Oraindik eraikin ugari geratzen dira, baina orokorrean erabilerarik gabe eta desagertze arriskuan.

Gipuzkoako arkitekturaren garapenean, Mugimendu Modernoko arkitektura industrialak paper garrantzitsu bat izan du. Baina ez denez inoiz balio honetan sakondu, emaitza izan da, ez administrazioek ezta profesionalak, ez dutela gestio onuragarriak egin eraikin hauen inguruan, ez hauek berreskuratzeko, ezta ere hauetan interbentziorik egiteko.

Eraikin industrialen arkitektura ulertzeko, atzera begiratu behar da, Lehen Industria Iraultzan kokatuz. Garai horretan, produkzio industrialak behar berriak ekarri zituen arkitekturaren programan: labe, burdinola edota galdategiak sartzeko kapazak izango ziren espazioak, orduan existitzen ez ziren eraikin arkitektoniko motak ziren. XVIII. mendean garatzen joango zen pabiloi industrialak egiten hasi ziren. Etengabeko garapenean, XIX. mendean eraikin industrial harrigarriak egitera iritsi ziren, XX. mendeko arkitektura berriaren aitzindari izango zirenak. Ingalaterrako industria gunea handiak, Arts & Crafts mugimenduak etab. arkitekto askorengan influentziatu zuten, adibidez Deutscher Werkbund-en.

Pertsona aipagarri bat arkitektura europar industrialaren modernizazioan XX. mende hasieran, Peter Behrens da, Deutscher Werkbund-eko partaide bat, AEG konpainiarentzako eraikinetan bere teoria praktika eramanen. Eraikinaren forma, eraikuntza eta ornamentua, eraikinaren funtzioetik etorri behar zela defenditzen zuen.

1920 urteen hurrengo hiru hamarkadetan, Mugimendu Modernoa arkitekturaren garapenean korrante nagusia izan zen. Aipatutako Bigarren Industria Iraultzak eraikin berriak behar zituenez prozesu berriak produktiboak izateko, Mugimendu Modernoa oso ondo egokitu zen. Arkitektura domestikoan edota instituzionalean lengoaia eklektikoa erabiltzen zen arren, industriak Mugimendu Modernoaren alde apustua egin zuen fabrika eta tailer berriak eraikitzeke. Zenbait arrazoik

eragin zuten postura hau: arkitektura hau funtzionala eta arrazionala zen, egitura erresistenteak, espazio argitsu, zabal eta malguak eskaintzen ziotuen.

Urtez urte, European Mugimendu Modernoaren integrazioa industrian normalizatuz joan zen, Gipuzkoara iritsiz. Eta nahiz eta lehen eraikin industrial modernoak 1928an eraiki (Andoainen Laborde Anaen Fabrika), Gerra Zibila bukatzean hasi zen benetan Mugimendu Modernoko arkitektura industrialak garatzen Gipuzkoan, 1940 urtean inguru.

Pasaia ingurura gerturatuz, 1940eko hamarkadan kontsolidatuko da Mugimendu Modernoa industrian. Lehenengo eraikina Rederia izango da, BITA Eraikina (Gaiztarro, 1947), Trintxerpen.

Altzako gunea honetan, Txingurrin, baserri eta baratzak kokatuz industriaren ezarpena ulertzeko, ondoan dagoen Pasaia portuan erreparatu behar dugu.

Pasaia, aspalditik inguruen dinamizatzaile izan da, komertzialki, militarki eta industrialki. Inguruko herrien garapenerako gakoa da. Portu inguruetako gunea nagusi bat dugu Altza, historian zehar egoera politiko desberdina izan ondoren, 1939tik aurrera Donostiaren parte dena. Portutik industriak hedatuz joan ziren bertara, hasiera batean sakabanaturik industria auzo desberdinetan. Horietako bat Txingurri erreka ertzean kokatuko zen Txingurri industria gunea.

Industriak ekarritako garapen ekonomikoak eragin zuzena izan zuen demografian, 1900 urtean 2.000 biztanle izatetik 1959an 9.000 izatera pasaz. Ez zen plan erregulatzailerik egon eta naturalki eraikinak bata bestearen ondoan kokatzen joan ziren, muinoaren sesten jarraipenean.

Altzako industria gehien bat portutik gertuko guneean garatu zen, muinoa gora etxebizitzentzako hazkuntza garatuz. Eraikin industrial aipagarri bat "Fabrica de Duelas Llusá, Puig y cia" (1918) da, Pasai Antxorekin mugan. Funtzionaltasun hutsaren gainera arkitekturarekiko zuen sensibilitateagatik. Zoritxarrez, 1986an erabilerarik gabe geratu zen eta geroztik izandako abandonuaren ostean eraitsia izan zen.



F. Gaiztarro: BITA eraikina, 1947



F. Guardia: Fabrica de Duelas Llusá, Puig y cia, 1918

2 INGURU GERTUA

Industria gunek bere izena ondoko erreka zori dio: Txingurri erreka. Proiektuaren eremura sartu aurretik lurrazpiratuta dago Pasaiaiko portura iritsi arte.

Gaur egungo inguru gertuan aipagarriena eraikinen (eta orokorrean guneko osoaren) utzikeriaren atmosfera da. Industriaren nagusitasunaren desagertzea utzitako eraikin hutsak dira paisaia nagusi eta 2007an eraikitako etxebizitza berriak lekuz kanpo gelditzen dira.

Beste alde batetik, garai desberdinetako hirigintzak utzitako paisai lerro esanguratsuak ere eragina du inguruaren irakurketan: dorreak, baserriak, langile etxebizitzak, etxebizitza berriak, fabrika mota desberdinak...

Alde batetik, Larratxoko 70. hamarkadako hazkuntzak dentsitate altuko eraikinak utzi ditu guneari kota altuenetan. Bestetik, industria guneari atzekaldean langile etxebizitzak daude, 50. hamarkadakoak, industria Altza auzoan zabaldu zenekoa. Berrienak, industria auzoaren parean, ez dute fabriketarantz begiratzen, tarte plazetara irekitzen dira, hauen eta fabriken arteko kalea aberastu gabe. Honela, kota desberdintasunarekin eta etxebizitzaren eta espazio publikoaren harreman eskasarekin, guneari baztertzeari gertatu da.



3 ERAIKINEN ARKITEKTURA (I): Teran Metalurgicas

Datu orokorrak:

Espedientea: A-01012-04

Proiektuaren data: 1962ko apirilak 18

Arkitektoa: Luis Jesus Arizmendi

Luis Jesus Arizmendi arkitekto Donostiarrak enkargua jaso zuen 1957an. Arkitektoak, Madrileko Arkitekturako Eskola Nagusian lizentziatua (1936), doktoretza 1961an erdietsi zuen, Teran eraikinaren proiektua zuen bitartean. Ibilbide luzea izan zuen, 1936an Heziketa Publikoko Ministerioko eskola arkitekto izendatu zuten, eta ondoren, 1941ean, Donostiako udal arkitektoa. 1948tik 1968ra bitartean Donostiako Arkitektura Zerbitzu Teknikoetako zuzendaria izan zen, bere espezialitatea arkitekturaren alor teknikoak izan ziren, instalakuntzetan aditua. Hainbat eraikin gauzatu zituen, eraikin publikoak, kirollekoak eta batez ere hezkuntzara bideratutakoak. Ikerlan desberdinak burutu zituen, hiriguneen babes, ibilgailuen zirkulazioa, parke eta lorategiak, aparkalekuak eta hirien hazkundearen mugak esaterako.

Gaur egun eraikina funtziorik gabe dago. Nabe estu eta luzea da (16x60m), altuera bikoitzeko gorputz zentrala duena, eta etxebizitza eta ofizina guinea beste bi solairutan kokatuta fatxada nagusian.

Eraikinak bi gune desberdin dauzka beraz, arkitektonikoki ere bananduta. Fabrikako guinea portiko bereizgarrien segida batek osatzen du, hormigoi armatuko zutabe markatuek sortuta. Zutabeak trapezio baten moduan, portikoaren momentuen arabera, goikaldean zabalagoak egiten dira. Estalkian, zutikako habeek osatzen dute portiko segida. Irekidurak ez dira proiektuan diseinatu ziren moduan ireki, ziurrenik errealitatean bigarren solairu bat kokatu zelako perimetroan, ziurrenik makinariara goitik iritsi ahal izateko. Hasierako proiektuan, irekidurek ez zuten solairuaren banaketarik egiten, altuera bikoitza jarraitzen zuten, kamioen sarreran egokituz.



Aldiz, errealitatean bai banatu zirela, eta bigarren solairu perimetral horretan luzekako irekidurak jarri ziren, nahiz eta gaur egungo arotzeria ez izan originala, irekidurak hasieratik horrela egin ziren, dokumentu historikoetan ikusi daitekeen bezala.

Eraikinaren beste guinea sarrera nagusia da. Laukizuzenaren alde motzean kokatuta dago, pareko Odriozola y Berridi eraikinari begira (berak ere kale berdineran egiten zuen sarrera, Avesa, ondoko eraikinak bezala). Gune honek hiru solairu dauzka, behe oinean fabrikarako sarrera, hurrengoan bulegoak, eta azkenean jabearen etxebizitza. Honek, estalkirako sarrera zuen, eta bertan baratza handi bat zegoen. Estalki begetalari esker, portikoek banatutako guinea desberdinetan jabeak baratzak jarri zituen.

Eraikinaren egitura hormigoi armatuz egin dago, fatxada adreiluz, eta arotzi metalikoa. Materialtasun guztiz desberdina dute bi guneek fatxadan, domestikoak adreilua bistan du eta fabrikak estuko zuriz estalia, mugimendu modernoak eraginda.

Zirkulazioa oso argia da: jabe eta bulego langileak fatxada nagusiko beirazko atetik zuten sarrera eta komunikazio eskailera propioak. Aldiz, fabrikaren langileak nahiz eta fatxada berdinean izan sarrera, beste ate handi eta industrialetik zuten sarrera, eta fondoan komun-aldagela-eskailera zeuzkaten. Zamek 3 sarrera nagusi zeuzkaten, alboko fatxada luzean markatuta.

Balio arkitektonikoa egiturak eta ondorioz fatxadak ematen dio. Portikoen diseinua eta hauen segidak fatxada esanguratsu bat sortzen du. Funtzioen bereizketa funtzionala eta arkitekturaren duen isladak ere sarrerari indarra ematen dio. Ez dago tradizioari keinurik, ez estalkian, ez fatxadan. Arizmendik alor teknikoak ondo ezagutzen zituen, egitura eta eraikuntza txukuna eta funtzionala egiteko gai ikusi zen, hortik estalki berdearen funtzionamendu ona ere.



3 ERAIKINEN ARKITEKTURA (II): Odriozola y Berridi S.A.

Datu orokorrak:

Espedientea: H-02595-09

Proiektuaren data: 1960ko azaroak 16

Ingeniaria: Manuel Odriozola

Inguruko beste eraikinak bezala, funtziorik gabe dago ia bere osotasunean. Bulegoen eraikinean, oraindik enpresa desberdinek alokatutako lokalek bizia ematen dute, siloaren utzikeriatik kontrastea egiten. Bulegoen eraikinaren atzekaldean, gaur egun Otaegi pastelgintzak okupatzen du, funtzio originalaren jarraipenaren lekuko. Fabrikaren eraikinak ordea, ez du funtziorik. Egitura erregularreko eraikin handi honek ezin izan du, edo ez da asmatu, erabilera berririk sartu.



1923 urtean Manuel Odriozola eta Berridi semeak enpresak batu ziren Odriozola y Berridi S.A. enpresa sortuz. Ondoren Rich bilakatu zen, duela urte gutxi batzuk itxi zena. 1950 urtean enpresak hazkundera handia jasan zuen eta fabrika handiago baten beharra izan zuten. 1960 urtean proiektatu zen enpresaren fabrika berria, Txingurri industria auzoan, Manuel Odriozola ingeniariaren eskutik. Aipatu den bezala, hiru gune dira, bi multzotan banatuta: lehenengoa fabrika nagusia. Beste multzoa bulegoak eta silo nagusia osatzen dute.


Hiru guneak oso desberdinak dira, arkitektonikoki gehien nabarmentzen dena siloa da. Adreiluzko 16 zelula oktagonalek osatzen dute, egitura bera da eta 2.000 tonelada jasateko gai da. Zelula hauek hormigoizko zapatean bukatzen dira. Akabera zuria zuen hasiera batean eta gunean protagonismoa hartzen zuen bere formagatik. Irekidurarik gabe, horma itsuen sartu irtenek bolumenari sakontasuna ematen diote. Sartu irten hauek guztiz funtzionalak dira, oktagonoen forma bera bait dira.

Fabrika 4 solairutan banatuta dago. Hormigoi armatuko egitura erregularra du, zeharkako ardatzean adintelatuta, eskaileren gunean ezik, goitik beherako espazio luze batek banatzen duelako espazioa. Teran eraikinean ikusi den bezala, hemen ere bi material erabiltzen dira: estuko zuria eta adreilua bistan. Alde batetik, kale nagusira ematen duen fatxadak adreiluko akabera zaindua du. Bestetik, beste hiru fatxadek estuko zuriko akabera dute. Kasu honetan, ez da sarrera egiten adreiluko fatxadatik.


Sarrera kale nagusitik baino beheago dagoen kotatik egiten da, siloaren eta fabrikaren artean dagoen kaletik. Irekidurak portikoz portiko doaz, fatxada guztiak beira-adreilu proportzioa 1:1 izanik ia-ia. Ekialdeko eta mendebaldeko fatxadak berdinak dira, nahiz eta azken solairua barnera eramaten den ekialdeko aldean.

Azkenik, bulego eta okindegia zen eraikina dago, siloari itsatsia. Honek eta bi material uztartzen ditu, beste eraikinaren berdinak. Kasu honetan adreilua sarrerako fatxadan (Teran eraikinaren parean dagoen kalean) erabiltzen da, eta estuko zuria beste bi fatxadetan. Azken fatxada mehelina da siloarekin. Egitura hemen ere hormigoi armatukoa da, eta fatxada guztiak adreiluz eraikiak. Eraikina ez da simetrikoa, sarrerako aldean 3 solairu dauzka, baino fabrikaruntz ematen duen zatian, kota baxurago dagoenez, nahiz eta 3 solairu izan, beheruntz hedatzen dira solairuak.






Siloea eta bulego-okindegi eraikinak.
Teran eraikinaren parean sortzen duten fatxada.



Siloea eta bulego-okindegi eraikinak.
Luzekako ebaketan siloaren zelulak ikusgai.



Fabrika eta bulego-okindegi eraikinak.
Egitura erregularra, bi isurietako estalkia.

4 EGOERA TEKNIKOA (I): Teran Metalurgicas

Orokorrean eraikina egoera onean dagoela esan daiteke. Mantentze eskasa egin dela ikusten da, baina eraikinak ez du zauri larrikerak erakutsi. Mantentze minimoekin oso ondo mantendu da. Azaleko kalteak ditu, egitura arriskuan egon gabe.

EGITURA. Hormigoi armatua. Egoera ona.

Barnera sartzea oso zaila denez, egitura ezin izan da zehatz aztertu, baina irekiduretatik ikusi daitezkeen guneeetan behintzat, egoera onean dagoela esan daiteke. Ez du gainkarga handirik jasan bere azken urteetan, utzita egon denetik. Gainera, portikoen tamaina gaindimentsionatuta dago, estalkiaren karga jasan behar bait du soilik (lehen makinak zapaitik eskegita edo eutsita egon zitezkeen, portikoen tamaina ikusita).

ESTALKIA. Hormigoi armatua. Estalki berdea. Egoera zalantzarria.

Arizmendi aditua zen instalakuntza eta atal teknikoetan, beraz ez dago zalantzarrik eraikinak ondo funtzionatu zuela hasieran. Baina gaur egun ikusi daiteke estalkiko begetazioa kontrolik gabe hazi dela. Eraikina ez dago prest horrenbesteko berdegunea izateko, baratzentzat prestatu baitzen. Beraz, nahiz eta estalkira igotzeko aukerarik ez izan, honen berritzea egin beharko dela onartu behar da. Garbiketa sakon bat eta honen egituraren azterketa bat.

FATXADA. Adreilua. Egoera onean.

Fatxadaren orria adreilukoa da, ez du pitzadura ezta erorketarik erakusten kanpoaldeko azterketan. Beraz, garbiketa baten ondoren berritu beharreko piezak (behar izanez gero) ordezkatzearekin nahikoa izango zen honen konponketari dagokionez.

Fatxadaren akabera, aldiz, ez da egoera onean aurkitzen. Ondo egindako estaldura bat egin beharko litzake. Fatxada nagusian aurpegia bistan duten adreilu batzuk erori egin dira, beste batzuk kutsaduraren zikinkeria dute, besteak beste. Beste gunean, egoki margotu beharko litzake. Azken urteetan fatxadari margo zuria pasa zaio, baina ez bere osotasunean, ezta ere modu homogineoan.

AROTZERIA. Metalikoa. Egoera txarrean.

Behe solairuan arotzeria originala mantendu da, baina egoera txarrean aurkitzen da. Beirak hautsita, metala herdoildua... Honen aldaketa egin beharko litzake, bere egituraketa originala jarraituko lukeen arotzeria batez ordezkatzeko litzake, termikoki eta akustikoki hobeto funtzionatuko duten arotzeria jarri beharko litzake.

Luzerako irekiduretan aluminiozko arotzeria dago, ez dago hain egoera txarrean, eta horregatik eta honen diseinu eta estiloagatik, suposatu daiteke ez direla originalak. Mantentze lan batean ordezkatzeko zirela uste da. Hauen aldaketa akustikoki eta termikoki hobeto funtzionatuko lukeen arotzeria jartzeko izango zen. Eraikinaren estetika errespetatuko lukeen arotzeria finago bat hobeto integratuko litzakela uste da.



EGITURA.
Ez du pitzadurarik, ez arrakalarik.



EGITURA.
Gune osoan zehar egoera onean ikusten da.



FATXADA.
Ez adreilu orriaren material galerarik.



FATXADA.
Akaberaren berritzea egin izan dute baina ez era homogineoan.



ESTALKIA.
Begetazio handia duela ikusi daiteke.



AROTZIAK.
Metala erdoildua eta beira hautsiak.

4 EGOERA TEKNIKOA (II): Odriozola y Berridi S.A.

Kasu honetan ere, eraikina egoera onean dago. Bulego eraikinean mantentze hobea egin da funtzioa bait du. Beste bi eraikinetan ordea (fabrika eta siloa), mantentzea ez da oso ona izan, baino ez dute zauri larrikik erakusten hauek erez.

EGITURA. Hormigoi armatua. Egoera ona.

Siloan adreilua, azterketa baten beharra.

Eraikin multzoan ezin izan da sartu, soilik bulego eraikinean, eta egitura ez dago ikusgai barne banaketengatik. Fabrikaren eraikinean egitura kanpotik ikusten da gune batzuetan, eta ez du pitzadurarik printzipioz. Eraikin hauek ez daramatzate hainbeste urte erabilerarik gabe egoera larrian aurkitzeko. Siloan aldiz, egitura diren adreiluzko oktagonoak gune batzuetan bistan gelditu dira. Hauen egoera ona ziurtatu beharko litzake, baino ez dute arriskurik erakusten.

ESTALKIA. Hormigoi armatua. Estalki inklinatua. Egoera onean.

Estalki inklinatuak arazorik gabe husten ditu euri urak, eta nahiz-eta teilen berritzearen beharra ikusi bidez, ez da estalkian arazorik ikusi. Fabrikaren tximinia asko atera behar izan ziren, horrek izandako eragina aztertu beharko litzake, baino hauen aldaketa eta sortutako zuloak ondo itxi eta iragazgaitu ostean, ez da arazorik aurreikusten. Siloaren estalkian egoera zalantzarriagoa da. Honek garbiketa sakon bat beharko luke, ez bait da estalki berdea eta gaur egun landaredi handia hazi bait da.

FATXADA. Adreilua. Egoera onean.

Fatxadaren orria adreilukoa da, eta orokorrean ez da arazorik ikusten. Fabrikaren, fatxada egituraren lerro berdinean eginda dagoenez eta dilatazio juntak ondo errespetatu ez zirenez, egiturarekin elkartzean gune batzuetan pitzadurak agertu dira. Egiturarekin elkarguneak material malguarekin zigitatu beharko ziren. Bestela, tximinia eta hustubide batzuentzat egindako zuloak kenduta, ez dago materialaren faltarik. Siloan gune batzuetan erori dela ikusi daiteke. Honen ordezkapena egin beharko litzake beharrezko guneetan.

Teran eraikinean bezala, fatxadaren akabera, aldiz, ez da hain egoera onean aurkitzen. Fabrikaren estuko zuria belztua dago, gune batzuetan erori da eta hezetasunak ikusi daitezke beste batzuetan. Adreiluzko fatxadan, patina zuri gutxi batzuk daude, irekiduren azpian, ziurrenik uraren pilaketagatik gatzak atera dira. Bestela egoera onean dago. Siloaren akabera oso gastatuta dago. Zuriz margotua zegoen egoera originalean, orain zuri gutxi du, zikinkeriak ia dena estali du, eta beste gune batzuetan akabera erori da.

AROTZERIA. Metalikoa. Egoera onean.

Arotzeria originala kontserbatzen da fabrikaren. Orokorrean ondo mantendu da, beira ezik. Beiraren ordezkapena beharrezkoa da, eta arotzeriaren konduktibitate azterketa bat beharko litzake, honen ordezkapena baloratzeko, eraikinaren energiaren optimizazioa ziurtatzeko.



EGITURA.

Siloaren zelulen oinarria.



FATXADA.

Fabrikaren akabera erorketa eta zikinkeria. Siloan egitura bistan.




ESTALKIA.

Begetazioa hazi da bai siloan, baita fabrikaren ere.

4 EGOERA TEKNIKOA (III): Avesa

Teran eraikinaren ondoko eraikina da. Hasiera batean eraikin txukun eta funtzionala zena, oso egoera txarrean aurkitzen da gaur egun. Inguruan txabola txikiak txertatu zaizkio, eraikina guztiz inguratuz. Eraikinaren mantentzea okerragoa izan da, agian lehenago utzi zelako, edo materialen kalitatea baxuagoa zelako. Akabera erosioz desegiten joan da, egiturara iritsi arte. Gune askotan armatua bistan gelditu da, karbonatazioagatik eta ziurrenik ez zelako hormigoi nahikoarekin estali armatua, edo distantzia gutxi utziko zen. Barnealdean eta estalkian begetazioa hazi da, honen egoera zalantzarria eginez.




AVESA.

Hasiera batean eraikin garbia. Gaur egun osoa egoera txarrean.



AVESA EGITURA.

Egitura bistan gelditu da eta karbonatazioa ikusgai.



Txingurri auzoaren garapena XX. mendean zehar.

5 BILAKAERA HISTORIKOA

Alde batetik, Altzako bilakaera historikoa dago, eta bestetik, honen barnean, Herrerako bilakaera, Donostiako HAPOak Txingurri Larratxo esparruan sartzen duen arren, kota desberdintasunagatik Herrerekin lotara handiagoa izan duelako beti.

Altzari dagokionez, oso goiz batu zen Industria Iraultzara, gipuzkoako inguruko paisaia eta espazio tradizionala aldatuko zuena. Esan bezala, kokapen estrategikoa izan du, inguru dinamiko batean. Gipuzkoako hiriburua ezkerrean eta Pasaiako Portua eskuinean duelarik. Honek, Altzako hiriko garapena eta garapen ekonomikoa baldintzatu ditu.

Modu honetan, eskualdeko ardatz estrategiko nagusietako bat izatera iritsi zen, bainoaldi berean, komunikazio lerro berriek eragindako mozketak fisikoak jasan behar izan zituen. Denak eki-mende ardatzean. Herrera komunikazio ardatz horretaz inguraturik gelditu zen. Honen alde positiboa, XIX mendetik aurrera, Alza Gipuzkoako komunikaziorik onenetarikoak zuten herria bilakatu zela izan zen. N1 errepideak zeharkatzen du Madril-Paris ardatza duena, eta trenbide garrantzitsuenak ere hemendik pasatzen dira.

Errepideei dagokienez, 1833 urtean aurkeztu ziren Donostia-Irun batzeko proiektuak. Irabazleak, Donostiako Santa Katalina zubitik luzatzen den ardatza jarraitzea proposatu zuen. Mirakruz, Alza, Salinas, Molinao eta Erreteriatik pasata.

Trenbideei dagokienez, 1850 urtetik aurrera trenbideen eraikuntza behar garrantzitsu bat bihurtu zenetik, proiektu asko eta asko egin ziren Gipuzkoa saretzeko. Azkenik, 1857 urtean sinatu zen proiektua, 4 urteko epean Bidasoa-Ordizia lotura egiteko konpromezuarekin. 1963rako ia dena egin zegoen. Honekin lotura, 1865ean eraiki zen Herrerako zubi karakteristikoa. Fabrikazko puntu erdiko arkuek osatuta, harlanduzko akabera eta harlangaitzko betekina duten euskarrien gainean. Juan Maria de Rezola eta Bernardo de Achaga de Villabonak egin zituzten bertako obrak.

Lehenengo industrializazioa XIX. mende amaieran iritsi zen Altzara, nekazal auzoa zenean guztiz. Baserri isolatuek osatzen zuten auzoa, eta etxebizitza multzo batekin San Martzial elizaren inguruan. Zenbait sagardotegi zeuden auzoan zehar, eta ontziola bat Herrerako badian. Hiriburua eta Pasaiako portuarekiko gertutasunagatik, eta aipatutako komunikazio onagatik, berehala iritsi zen bigarren sektorea bertara. 1920 inguruan dagoeneko firma industrial asko asentatu ziren Altzan.

1940tik aurrerako industrializazioa, bigarren garai bateko da. Lehenengoan, enpresak sakabanatuak zeuden, eta orainoan, zenbait zonatan kontzentratu zen industria. Enpresak ere tamaina handiagokoak izango dira. Arkitekturak Mugimendu Modernoaren influentzia izango du, hau eraikin industrialak proiektatzeko oinarria izango baitute. Garai honetakoak dira: Victorio Luzuriaga S.A., Rutilita, Oxigraf, Zardoya Otis, Pescafría, Ramon Vizcaino S.A., Armendariz, Rich, Avesa, Teran... (Azken bost hauek Txingurri industria auzoan kokatuta).

Garai horretan, Donostiako anexioarekin kointziditzen duena ere, biziko da hirigintza aldetik aldaketa handiena. Lurzoruaren kolonizazio prozesu luze bat hasiko da, mota askotariko etxebizitzekin. Hiri lorategia alde batetik, langileen etxebizitzak bestetik...

1962 urtean gertaera garrantzitsu bat izan zen: Hiri Antolamendurako Plana Orokorra onartu zen (1962ko HAP0a), Donostian hirugarren sektorea bultzatzen zuena, turismoa batez ere. Beraz, Donostia funtzio desberdineko 4 areatan banatu zen, eta Altza bigarren arean sartu zen: Pasaia Portuaren gertutasunagatik eta industria guneengatik, langile auzo izatera hartuko zuen. Geroztik eratorritako Plan Partzialekin dentsitate altuko etxebizitzak eraiki ziren, 60-70 hamarkadetan (Bidebietako La Paz adibide garbi bat). Industriaren modernizazioak eta bizitegi erabileraren gailentzeak industria poliki-poliki gunetik ateratzea eragin zuen.


Fabriken ixteak, lekuz aldatzeak, fabriken modernizatzeko beharrak... Arrazoi desberdinegatik, industria dekadentzia batera iritsi zen XX. mendera. Geroztik, XIX. mendean hiri ehunduran gelditutako industria gune hauen integrazioarako proiektuak egin ordez, gune hauen desagertzea eta hauen gainean etxebizitzak eraikitzeak proiektuak sustatu dira, hala nola, adibidez Txingurri auzoan Ramon Vizcaino bota izana 2007an etxebizitzak berriak eraikitzeak.

Gaur egun, Herrera korapilo urbano bat bilakatu da:
 /Renfe auzoaren erditik pasatzen da. Altueran.
 /N1 errepidea. Azpitik.
 /A8 (N1 erako sarrera). Altueran.
 /Bariantea. A8 irteera. Altueran.
 /Euskotrena. Azpitik.

Oinezkoen eta motorgabeko bideak zailtasunez egiten dira. Historian zehar bizitako aldaketek gunea azpiegituren eta industria gune desaktibatuen artean utzi dute auzoa. Herrerako bizilagun mugimendu handia egon da azken urteetan egoera hobetzeko lanak egiten dituenak, kalitatezko espazio publiko bat izateko.



Herrerako trenbidea, 1908.



Txingurri industria auzoa eraiki berri, 1962.



1968.



1969.



1986.



1987.



1946.



1957.



1957.

Txingurri auzoko lehen fabrika eraikia dago jada: **Ramon Vizcaino S.A.**

Dagoeneko, besteak eraiki- tzeoko planak martxan daude, eta handik urte gutxira, 1962 urterako, denak funtzionatzen egongo dira.

Auzoko hastapenak dira. Oraindik inguruko etxebizitza ez da, **nekezal ingurua** gailentzen da.



1983.



2002.



1983.

Eraikita eta funtzionamendu osoan dago industria gunea osoa, **Odrionzola y Berridi S.A., Terán Metalúrgicas, Avesa eta Ramón Vizcaino** zentrua du.

Inguruak aldaketa sakon bat jasan du: 1962ko HAPO berriak etxebizitza mota berri baten eraikitzea ekarri du: **dentsitate altuko etxebizitza eraikinak.**



2007.



2015.



2015, gaur egun.

Aldaketa nagusia **Ramón Vizcaino** eraikinak ordez, 2007 urtean eraikitako etxebizitza berrien eraikuntza da.

Gunea dekadentzian egon da azken urteetan edo hau eraberritzeko etxebizitza erabilera eman nahi izan zaio, baino ez da egoera aldatu.

Gaur egun **interbentzio bat** eskatzen duen gunea bilakatu da, eraberritu behar du.

6 ONDORIOAK

Auzoaren bilakaera ulertu da, bizitako aldaketak aztertu ondoren. Inguruko hirigintza ordenazioaren zergatia, industria auzoaren kokapenaren zergatia... Gaur egungo kontestura ekarri behar da guneak funtziona dezan.

Eraikinei dagokienez, balio arkitektonikoa aitortzen zaio Teran eraikinari. Egitura garbia eta azpimarragarria, estalki erabilgarria eta txukun eginda eta funtzio desberdinen uztarketa, eta aldi berean, bereizketen islada materialtasunari esker. XX. mende erdialdetik aurrerako arkitektura industrialaren adibide bereizgarri bat, Gipuzkoako gune estrategiko honetan.

Honen parean, Odriozola y Berridi enpresako siloaren monumentaltasunak duen presentziaren garrantzia azpimarratu nahi da. Egitura eta funtzioa bat datozen eraikinitsuak erabilera berria izan dezakeela frogatuko da. Enpresa bereko fabrika gordetzen zuen eraikinak ere guneko ikonoetako bat da gaur egun. Siloa eta fabrikak osatzen dute kale nagusiranzko fatxada. Kasu honetan ere, materialtasun aldaketa kale desberdinen aurrean, irekiduren segida eta egitura erregularrak, gaur egun ia edozein erabilera emateko balioa ematen dio.

Azkenik, Avesa eraikinaren egoera txarra dela eta, ez zaio garrantzi arkitektonikorik emango, txertatutako pabilioi txikiz josi eta hondatzen joan baita. Gunean duen presentzia ahulduz joan da, elementu aipagarririk izan

gabe. Honen eta Teran artean dauden pabilioi eta hormek, bi eraikinen artean harresi itxi bat osatzen dute, elkar elikatzea oztopatuz.

Azpimarratu nahi da, errealitatean ez zela ezta eraikin bat eraiki proiektuaren planoetan azaltzen zen bezala. Horrek ez du zertan negatibo izan behar, malgutasuna ematen bait du interbentzio baten aurrean. Adibidez, Teran eraikinean solairu bat eraiki zen altuera bikoitzeko espazio bat izan behar zuen gunean, horrek aukera ematen du solairu horretaz baliatzeko. Edo eraikin bereko gune domestikoaren errealitateko hedapenak ere, horren handitzea ahalbidetzen du.

Espazio publikoari dagokionez, oinezkoen presentziaren falta nabaritu da. Garai batean gunea industria eta makinariarentzat diseinatu zen arren, ondoren etxebizitzetaz inguratu bait zen, honen diseinuan aldaketarik egin gabe. Kota aldaketek muga fisiko handi bat suposatzen dute, gaur egun gaintzeko behar ukalezina dena.

Laburbilduz, Teran + Odriozola eta Berridi elkarpuntuen potentziala ondoriotatu da, bai arkitektonikoa, erabilera berriak barneratzeko gaitasuna dutelako eta bizitako historiaren lekuko direlako, baita ere espazio publikoaren giltzarri bat izan daitekeelako. Herrera eta Larratxo batzeko puntu bat da, auzoaren garapenaren arrazoi den industria ondarea. //

